

COVID-19 + Brexit
Dr Igor Calzada, MBA, FeRSA

Nola aldatzen diren gauzak...kamarada.

Halaxe da. Zein akordatzen da une honetan *Brexit*-a *tsunami* bat zela esaten genuen garaiaz? Badirudi urteak pasa direla iragan Martxotik. Munduko txoko guztietara barreiatu den *COVID-19* fenomeno globalak, gure bizitzak ertz muturreko hauskortasunera bultzatuz, bere gordintasunean gatibu izatera kondenatu ditu; egunak motelduz, 24 orduak gure testigu bakar bihurtuz.

Hala ere, OECD-ren azken txostenaren arabera, oso bestelakoak izaten ari dira hiri eta lurraldeak jarraitzen ari diren estrategia eta baita ondorioz ere jasotzen ari diren emaitzak. *COVID-19* krisiaren ekonomi beherakada BPGren %6-7,6 tartean egongo dela diote aurreikuspen baikorrenek. Erresuma Batuentzat aldiz (Italiar, Frantziar, eta Espainiar estatuaren pare), %11-14 tartean finkatu dira aurreikuspenak.

Orohar, post-*COVID-19* gizartearen ustezko susperraldia, uztartuta agertuko diren lau faktoreen menpe egongo dela argudia genezake: (i) tokiz-tokiko lurraldetasun/demografiaren ezaugarriak; (ii) *COVID-19*-aren hedatze-portaera; (iii) hiritarren erreakzio-tipologiak; eta (iv) gure gizarteak zundatzen diharduten adimen artifizialaren zuntza eta promesak.

Halaber, *Brexit*-a ezin dugu jada *COVID-19*-tik banatu. Zehazkiago esanda, bi fenomeno uztartu hauek beste iraultza sakonago baten atezua besterik ez direla esatea ez litzateke ahuntzaren gauerdiko eztula izanen: aldaketa klimatikoaren krisira itsu-itsuan eta ezinbestean garamatzan adimen artifizialaren iraultza ikustezinaz ari naiz. Delako 'normalitate berri' hori ez ote dira jada gure artean ditugun tresna teknopolitikoak? Gure baimenik gabe gure bizitzetan sartu direnak kasu askotan: Telemedikuntza pertsonalizatua, robotika, norbanako eskubide (digital) eta osasun publikoaren arteko arrakalak, derrigorrezko distantziamendu fisikoak eragin duen gizarte kapitalaren pitzadura, ez-ikutzearen norma, kontrol soziala, psikografismoa eta informazioaren kontrola, eta infodemia, besteak beste. Kontu honetan ere, Erresuma Batua, Europan aintzindari da eta gure ispilu bihur liteke, post-*COVID-19*-etik atera beharko genituzken onurak probestuz (adimen artifiziala hiritarrekin batera ekoiztu beharraz) eta alboko-kalteak ekidinez (Coronavirusaren osasun ondorio zuzenetaz gain, arrakala sozio-ekonomiko eta algoritmiko estrukturaleri alternatibak bilatuz).

2020ko Urtarrilaren 31an, Erresuma Batua Europar Batasunetik *de facto* at dago, Boris Johnson eta Dominic Cummings-en abilezia taktikoa medio. Pandemiak 45.878 hildako utzi ditu bertan honezkero, EE.BB.ekin batera puntako herrialderik jipoituenak izanik. Itxialdiko neurriak berandu hartzeak Johnson-en irudi publikoa ataka garbian jarri du bereziki: britaniarren heren batek ere ez ditu sustengatzen krisi pandemikoan hartutako neurriak eta egindako kudeaketa petrala. Bestalde, oposizioko alderdi nagusia den, alderdi laboristean aldaketa nabarmenak gertatu dira bitartean. Azken hauteskunde orokorretan Jeremy Corbyn-ek jaso zuen porrotaldiaren ostean, Sir Keir Starmer, alderdi laboristeko buruzagi berria gailendu da. Starmer, alderdia trinkotzen saiatzen ari da, *Brexit*-aren inguruan txintik ere esan gabe (oso ohikoa alderdi laboristean, lubakitu ez dadin, zauriak berriro ireki ez daitezen). Starmer iraganean, *remain*-zale gisa agertu izan bada modu aktiboan, kalkulu politiko zehatzak egiten dabil *Brexit*-aren inguruan adierazpenak egin gabe baina Corbyn-ek porrotaldiak erakutsi zuena oso presente edukiz uneoro: *Brexit*-a da (*COVID-19*-arekin batera orain) britaniarren buruetan dagoen afera nagusia. Antza Starmer-rek bete-betean eman du Johnson-en irudia eta gobernua higitzeko ahaleginean, izan ere, lehengo inkestek Starmer aukeratzen dute lehen

ministro izateko britaniarrek egingo luketen lehengo aukera gisa. Dena den, datozen hilabeteotan, Starmer-rek ezingo du (britaniarren artean hain ohikoa den) *Brexit*-aren akrobata ekidistantearen papera jolastu. Eta beraz, litekeena da, SNP eta Lib-Dems-en alderdiekin batera, Bruselarekin irekita dagoen negoziatziorako luzapen bat eskatzea 2020ko Abenduaren 31tik harago, behin-betiko *Brexit*-a berriro ere atzeratuz. Britaniarren erdiak baino gehiagok sustengatzen du aukera hau azken inkesten arabera.

COVID-19-ak eraman lezake Erresuma Batua *Brexit* gogor batetara, alegia akordiorik gabeko (*no-deal*) *Brexit* batetara? Erresuma Batuko ekonomia, 2016ko *Brexit*-aren erreferenduma ezkerotik uste zena baino %3a gutxiago hazi da, alegia 77.000 miloi Euro gutxiago. Johnson-en egolatriatik harago ez dago inor interesatua *no-deal* batean. Enpresarien bazkunde eta *city*-an jokoan dauden interes ekonomiko-finantzieroak dira hain zuzen ere lobby indartsuenak akordio ordenatu bat erdietsi dadin.

Joku politiko-taktikoaz gaindi, Erresuma Batua-ren soziologia politikoak babes osoa eman zion *Brexit*-ari, Johnson eta Cummings-en alde eginez azken hauteskunde orokorretan. Beraz litekeena da Erresuma Batua, Islandia, Liechtenstein eta Noruega bezalako estatu txikien liga ‘partikularra’ apurka lerratzea. Alegia, Europar Ekonomi Espazioaren (EEE) jokalaria gisa. Hartara, EEEko jokalariek EBko barne merkatuan aritu daitezke EBko partaide ez izanarren, EBko gobernu erabakietatik at egonda noski. Erresuma Batua EBan 1973an sartu zen eta EEEa 1994an eratu zen. EEEa izan liteke balizko *exit*-a Erresuma Batua-rentzat. Kontua da, *Brexit*-a *COVID-19*-aren filtoetik errentagarri egin behar dela politikoki aurrena. *Nola aldatu daitezkeen gauzak, kamarada.*

Tartean, aste honetan bertan areagotu egin diren *COVID-19*-aren kasuak medio, Erresuma Batua eta espainiar estatuaren artean hiritarren zirkulazioa eten eta zaildu egin da. ‘Normalitate berria’ honakoa (izango) da ere aurrerantzean, etenik izango ez duen behin-behinekotasuna: Maila transnazionalen hegazkin eta mugikortasun gutxiago (zorionez), tokiz-tokiko garraioetan (zoritxarrez) kotxe pribatu gehiago, eta (edonon, alegia, etxean) sareratuta egonik etengabea *ziber-yonkien* gisara. Azken batean, amaitu al da munduko hiritar global/kosmopolita/kosmopaletoen tenorea? Baita Euskal Herriatik/an ere? Baina maila lokalean krisi global bati erantzunak aurkitzea komeni ez den garai honetan (Ulrick Beck dixit), nola nazioartekotu globalitate berri honetan subjektu protagonista inoiz bihurtu nahi badugu bederen mundu-mapan? Post-*Brexit* eta post-*COVID*, *post* asko dira, hiritar libre izan nahi duen(gun) ororentzat, aspirazio hori betidanik eraman duen(gun) ororentzat. Haatik, gauza bat garbi dago, Erresuma Batutik edo Euskal Herriatik begiratuta ere: honezkero hiritar pandemiko gara denok bai, kamarada. Guztien pare, ez gehiago eta ez gutxiago.

Nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada (hiritar pandemikoa).

To cite this article:

Calzada, Igor (2020) *COVID-19 + Brexit*. Berria.

Retrieved from https://www.berria.eus/egilea/Igor_Calzada

DOI: 10.13140/RG.2.2.11561.83047/1.